

UDALAK 2011ko APIRILAREN 11EAN EGINDAKO OHI KANPOKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BATZORDEKIDEAK:

ALKATEA:

Marian Beitialarrangoitia Lizarralde and.

ALKATEORDEAK:

Idurre Lucas Ezkioaga and.
Juan Ignacio Arrieta Egilegor jn.
Usoa Barrutiabengoa Olazabal and.
Unai Erroitzenea Gamio jn.

ZINEGOTZIAK:

Juan Carlos Plazaola Burugain jn.
Izaskun Txintxurreta Ibabe and.
Izaskun Ezeiza Olazabal and.
José Pérez Dominguez jn.
Jose Ramón Chica Ramirez jn.
Andoni Amonarraiz Gómez jn.
Jose Antonio Cuesta Sole jn.
Iñaki Arratibel Olaziregi jn.
Iñaki Barrio Sagastume jn.
Beatriz Fernandino Goitia and.
M^º Luz Anglada González and.

KONTU-HARTZAILEA:

Antxon Garcia Nadal jn.

IDAZKARIORDEA:

Pello Odriozola Zubizarreta jn

2011ko apirilaren 11ean ohi kanpoko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 18:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Marian Beitialarrangoitia Lizarralde alkate andrearen lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Pello Odriozola Zubizarreta idazkariordea.

1.- UDAL PLANEAMENDUAREN ARAU SUBSIDIA-RIOEN BERRIKUSPENAREN TESTU BATEGINAREN BEHIN BETIKO ONARPENA. - Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2007ko ekainaren 12an egindako bileran honako hau erabaki zuen:

1.- Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren espedientea behin betiko onartzea, espediente horren zein dokumentu onartzen ziren zehaztuta eta onartutako testuari hainbat eta hainbat baldintza jarrita. Erabakiaren behin betiko

1.- APROBACIÓN DEFINITIVA DEL TEXTO REFUNDIDO DE LA REVISIÓN DE LAS NNSS DE PLANEAMIENTO MUNICIPAL. - El Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en sesión celebrada el 12 de junio de 2007, acordó:

1º.- Aprobar definitivamente el expediente de Revisión de las NNSS, precisando qué documentos del mismo recibían dicha aprobación e incorporando al texto aprobado multitud de

onarpenak testu Bategin bat egitea exijitu zion Udalari.

2.- Berrikuspenaren behin betiko onarpena etetea udalerriko hainbat eremu eta sektoretan, zehazki area eta sektore hauetan: Latsunbe 9 eremuko LH-9.8, 9.9, 9.10, 9.1 eremuaren zabalketa eta 9.12, Elizatxo 21 eremuko LH-21.9 eta 21.11, Eziago eremuko LH-28.2, Epele 31 eremuko LHI-31.2 eta LH-31.3, Epele I eremuko LH-33.3 eta Lastaola eta Osinagako landaguneak. Eta ondoko eremu eta sektoretan: LH-19.3 Karabel, LH-20.4 Portua, LH-25.5 Martindegi, LHI-34.1 Altzueta eta iparraldean kokatutako LH-33.3 Epele I delakoaren eraikuntza.

Udaleko Zerbitzu Teknikoek Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina prestatu ondoren udalbatzak 2010eko uztailaren 14an egindako osoko bilkuran hartutako erabaki bidez onartu zen hastapenez, eta baita horrekin batera doan Iraunkortasun Txostena edo Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Azterketa ere, eta jendaurreko informazio epea irekitzea erabaki.

Jendaurreko informazio hori egite aldera, egin beharreko argitalpenak egin ziren eta, indarrean zeuden hirigintza xedapenen arabera, eragindako administrazioei (sektorekoei nahiz mugakideei), txostena eskatu zitzaizen.

Aurreko erabaki horren osagarri gisa, 2010eko uztailaren 29an egindako osoko bilkuran udalbatzak erabaki zuen Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean xedatutakoa betetze aldera dokumentu horiek garatuko zituen herritarren partehartze programa onartzea, eta programa hori bete egin zen.

2010eko irailaren 30eko osoko bilkuran jendaurreko informaziorako epea luzatzea erabaki zen, beste berrogeita bost egun baliagarritz.

Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina jendaurrean ikusgai egon zen epe luze horretan berrehun eta berrogeita hamahiru alegazio idazki aurkeztu ziren, baita hainbat

condiciones. La aprobación definitiva del acuerdo exigía al Ayuntamiento la redacción de un Texto Refundido.

2º.- Suspender la aprobación definitiva de la revisión en lo que a determinados ámbitos y sectores del municipio se refiere, concretamente las Áreas y Sectores SU-9.8, 9.9, 9.10, la ampliación de la 9.11 y la 9.12 del Ámbito 9 «Villas», SU- 21.9 y 21.11 del Ámbito 21 «Elizatxo», SU-28.2 «Eziago», SUE-31.2 y SU-31.3 del Ámbito 31 «Epele», SU-33.3 «Epele I» y los núcleos rurales de Lastaola y Osinaga y las Áreas y Sectores SU-19.3 «Karabel», SUE-20.4 «Puerto», SU-25.5 «Martindegi», SUE- 34.1 « Altzueta» y de la edificación del SU-33.3 «Epele I» situada al norte.

Elaborado por los Servicios Técnicos municipales el documento de Texto Refundido de la Revisión de las NNSS de planeamiento municipal, mediante acuerdo adoptado por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el 14 de julio de 2010 se aprobó inicialmente el mismo, junto al Informe de Sostenibilidad o Estudio de Evaluación de Impacto Ambiental, que acompañaba al mismo, y resolvió, igualmente, proceder a la apertura de un período de información pública.

A efectos de la apertura del período de información pública se efectuaron las publicaciones preceptivas, y se solicitó, conforme a las disposiciones urbanísticas vigentes, informe a las administraciones afectadas (sectoriales y lindantes territorialmente).

Como complemento del anterior acuerdo, en sesión plenaria celebrada el 29 de julio de 2010, por su parte, la Corporación aprobó el Programa de Participación Ciudadana que iba a desarrollar respecto de estos documentos, a fin de dar cumplimiento a lo dispuesto en la Ley del Suelo y Urbanismo; programa que fue efectivamente cumplimentado.

En sesión plenaria celebrada el 30 de septiembre de 2010, el Ayuntamiento acordó prorrogar el período de información pública por un nuevo período de cuarenta y cinco días hábiles.

Durante este amplísimo período de información pública del documento del Texto Refundido de la Revisión de las NNSS, se presentaron doscientos

txosten sektorial eta eragindako administrazio baten idazkia ere. Zehazki honako hauek aurkeztu zituzten: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepide Departamentuak, Ingurumen eta Landa- eta Itsas-ingurune Ministerioaren Kostaren eta Itsasoaren Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusiak, Donostiako Udalak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailarenren Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak.

Bestalde, azalpenak emateko hainbat deialdiren ondoren, Udal Planeamenduaren Aholku Batzordeak 2010eko azaroaren 3an egindako bileran Hernaniko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren aldeko txostena egin zuen, hainbat ekarpen eginez.

Jendaurreko informazio aldiari aurkeztutako alegazioak 2010eko abenduaren 21ean egindako bileran ebatzi zituen udalak, eta bilera horretan bertan Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren dokumentua behin behingoz onartzea erabaki zuen, hainbat aldaketa eginez eta baldintza jarriz eta, Udal Planeamenduaren Aholku Batzordeak egindako proposamen guztiak bere eginez. Gainera, osoko bilkura horretan bertan udalbatzak 2010eko abenduan udal teknikariek egindako testu bategina ere behin behingoz onartu zuen, berak onartutako aldaketa eta zuzenketa guztiak sartuta zeudela.

Osoko bilkuraren erabaki horrek baldintza bat jarri zion dokumentua behin betiko onartzeari: (CN) FL.07 areari eta (CN) SG.05 eta (CS) EL.02 sektoreei buruzkoak jendaurrean ikusgai jartzea. Baita jarri ere, inork alegazio idazkirik aurkeztu ez zuelarik.

2010eko abenduaren 29an Testu Bategina Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari helarazi zitzaion, dagokion espedientearekin batera, batzorde horrek egin beharreko txostena egin zezan, hau da, dokumentua behin betiko onartu aurretik egin beharrekoa.

cincuenta y tres escritos de alegaciones. varios informes sectoriales, y un escrito de una administración afectada, concretamente por el Departamento de Carreteras de la Diputación Foral; por la Dirección General de Sostenibilidad de la Costa y del Mar del Ministerio de Medio Ambiente y Medio rural y marino; por el Ayuntamiento de Donostia San Sebastián; por la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco; por el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes del Gobierno Vasco y por el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental.

Por su parte, tras diversas convocatorias a efectos explicativos, el Consejo Asesor de Planeamiento Municipal, en sesión celebrada el 3 de noviembre de 2010, informó favorablemente, con algunas aportaciones, el Texto Refundido de las NNSS de planeamiento municipal de Hernani.

En sesión plenaria celebrada el 21 de diciembre de 2010, el Ayuntamiento resolvió las alegaciones presentadas durante el período de información pública y acordó la aprobación provisional del documento de Texto Refundido de la Revisión de las NNSS con diversas modificaciones y condiciones, haciendo, además, suyas todas las propuestas del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal. Además, el Pleno, en la misma sesión, aprobó provisionalmente el documento refundido que con fecha de diciembre de 2010 se elaboró por los servicios técnicos municipales, y en el que se incorporaban todas las modificaciones y correcciones aprobadas por él mismo.

Dicho acuerdo plenario condicionó la aprobación definitiva del documento a la realización del trámite de información pública en relación al área (CN) FL.07 y a los sectores (CN) SG.05 y (CS) EL.02; tramitación que fue realizada, sin que durante el período de información pública se presentara escrito de alegaciones alguno.

Con fecha de 29 de diciembre de 2010, se eleva el Texto Refundido a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, junto a su correspondiente expediente, a efectos de la emisión por ésta del correspondiente y preceptivo informe, previo a la aprobación definitiva del documento.

2011ko otsailaren 18an Ingurumen eta Landa- eta Itsas-ingurune Ministerioaren Kostaren eta Itsasoaren Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusiko Itsaso/Lehorreko Jabari Publikoko Azpizuzendaritza Nagusiak Hernaniko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren aldeko txostena bidali zion udalari, baldintzarik gabekoa. (Txosten hori egin beharrekoa da Kosten Legearen 112.a eta 117.2 artikuluek diotena kontuan hartuta).

2011ko martxoaren 1ean Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailak erabaki zuen testu Bateginak ez duela ingurumenaren inguruko beste tramiterik behar.

Bestalde, 2011ko martxoaren 10ean egindako bileran Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak Hernaniko Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren inguruko aldeko txostena egin zuen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 91. artikuluan eta Lurralde Antolamenduari buruzko 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, lotesleak diren alderdietatik, eta Uren gaiari dagokionez hainbat baldintza ezarri.

Gainera, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak Testu Bateginaren dokumentuari dagokionez egindako txosten sektorial guztien kopiak bidali zizkion udalbatza honi, "gomendio" izaera hutsa zuten preskripzioak jasotzen zituztenak.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburuak 2011ko martxoaren 22an emandako Agindu bidez baimendu egin zen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 80. artikuluan 6. atalean eta Lege hori garatzen duen premiazko neurri buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 26. artikuluan aurreikusitako prozedurarekin bat etorritik, Hernaniko hiri-ingurunean Lege horretan etxebizitza babestuei dagokionez ezarritako gutxienezko estandarrik oso-osorik betetzea.

Aztertu dira honen inguruan egindako txosten teknikoak, horien artean udal arkitekto aholkulariak eta Ekolurrek egindakoak, azken hori Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak eta Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko

Con fecha de 18 de febrero de 2011, la Subdirección General de Dominio Público Marítimo Terrestre de la Dirección General de Sostenibilidad de la Costa y del Mar, del Ministerio de Medio Ambiente y Medio Rural y Marino del Estado remitió a esta Ayuntamiento informe favorable sin condiciones del Texto Refundido de la Revisión de las NNSS de Hernani, informe preceptivo a tenor de lo referido en los artículos 112.a y 117.2 de la Ley de Costas.

Por su parte, con fecha de 1 de marzo de 2011, el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, remitió informe al Ayuntamiento, en el que determina que el Texto Refundido no precisa de nuevo trámite ambiental.

Por otro lado, en sesión celebrada el 10 de marzo de 2011, la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco emitió, de conformidad con lo establecido en el artículo 91 de la Ley del Suelo y Urbanismo y 24 de la Ley de Ordenación del Territorio, informe favorable en relación al Texto Refundido de las NNSS de Hernani desde los aspectos cuyo carácter es vinculante, y estableciendo determinadas condiciones vinculantes en materia de Aguas.

Además, la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco remitió a esta Corporación copia de los distintos informes sectoriales emitidos en relación al documento de Texto Refundido, cuyas prescripciones tienen únicamente carácter de "recomendación".

Por Orden de 22 marzo de 2011, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco, se autoriza, de conformidad con el procedimiento previsto en el artículo 80. apartado 6 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, y artículo 26 del Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes, dictado en desarrollo de la anterior norma, el cumplimiento global en el conjunto del medio urbano de Hernani, del estándar establecido en dicha Ley en materia de vivienda protegida.

Vistos los informes técnicos emitidos al efecto, entre ellos, los emitidos por el Arquitecto Asesor municipal y por Ekolur, éste último en relación a los informes sectoriales dictados por la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental y por la

Zuzendaritzak egindako txosten sektorialeiei buruzkoa, zeinen bidez gomendatzen baita Testu Bateginaren dokumentuan hainbat doikuntza eta osagarri sartzea, eta argitzen baitira zuzendaritza horiek egindako hainbat gomendio ez sartzeko arrazoiak.

Aztertu da udaleko zerbitzu teknikoek 2011ko apirilean egindako testu bategina, non sartu baitira, edo, kontuan hartu, hala badagokio, ezarritako baldintza lotesleak, egindako txosten sektorialak eta beharrezko zuzenketak, dokumentuaren doikuntza eta osagarri puntualak direnak, inolako garrantziarik gabekoak.

Aztertu da, halaber, honi buruz egindako txosten juridikoa, espedientean jasota dagoena, non ondoriotzatzen baita behin betiko onarpeneko dokumentuan sartutako doikuntzek ez daukatela inolako garrantziarik eta osagarri hutsak direla, argibideak eta, zenbaitetan, sumatutako akatsak.

Kontuan hartu behar dira 2/2006 Legearen 91. eta 89. artikuluek ezartzen dutena eta baita Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c eta 47.2. II artikulua.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2011ko apirilaren 6an emandako irizpena.

Esandakoa kontuan hartuta, irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

* Aldeko botoak: 9 (Beitilarrangoitia and., Arrieta jn., Lucas and., Plazaola jn., Txintxurreta and., Ezeiza and., Erroitzenea jn., Barrutiabengoa and. eta Fernandino and).

* Kontrako botoak: 7 (Amonarraiz jn., Cuesta jn., Arratibel jn, Barrio jn, Chica jn, Pérez jn eta Anglada and),

* Abstentzioak: Bat ere ez.

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Hernaniko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen berrikuspenaren Testu Bategina, udaleko zerbitzu

Dirección de Desarrollo Rural y Litoral del Gobierno Vasco, en el que se recomienda la introducción de algunos ajustes y complementos en el documento de Texto Refundido, y se explicitan las razones para no incorporar algunas de las recomendaciones realizadas por estas Direcciones, a las cuales esta Corporación se remite.

Visto el documento refundido elaborado con fecha de abril de 2011 por los Servicios Técnicos Municipales, en el que se han incorporado, o, en su caso, considerado las condiciones vinculantes establecidas, los informes sectoriales emitidos, y las correcciones necesarias, que constituyen en su conjunto reajustes y complementos puntuales del documento, carentes de relevancia alguna.

Visto el informe jurídico emitido al efecto, y que obra en el expediente, el que se concluye que los reajustes introducidos en el documento de aprobación definitiva carecen de relevancia significativa alguna, y constituyen meros complementos, aclaraciones y, en su caso, rectificaciones de errores detectados.

Teniendo en cuenta lo establecido en el artículo 91 y 89 de la Ley 2/2006, así como lo dispuesto por los artículos 22.2.c y 47.2. II de la Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

Visto el dictamen de la Comisión de Urbanismo y Medio Ambiente de fecha 6 de abril de 2011.

La Sra. Alcaldesa-Pta. Lo somete a votación, obteniendo el siguiente resultado:

* Votos a favor: 9 (Sra. Beitilarrangoitia, Sra. Lukas, Sr. Arrieta, Sra. Barrutiabengoa, Sr. Erroitzenea, Sr. Plazaola, Sra. Txintxurreta, Sra. Ezeiza y Sra. Fernandino,

* Votos en contra: 7 (Sr. Amonarraiz, Sr. Cuesta, Arratibel, Sr. Barrio Sr., Pérez, Sr. Chica y Sra. Anglada).

* Abstenciones: Ninguno.

Por lo que a la vista de los votos emitidos, se acuerda:

Primero.- Aprobar definitivamente el Texto Refundido de la revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal de

teknikoeak 2011ko apirilean egindakoa.

Bigarrena.- Behin betiko onartzeko erabaki hau honako erakunde hauei jakinaraztea: Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa Departamentuari, Itsasertzetako Probintzia Zerbitzuari eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari.

Hirugarrena.- Planaren kopia bat Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan jaso dezan.

Laugarrena.- Legez egin beharreko argitalpenak egitea, bereziki Testu Bagteginaren Hirigintza Arauena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 89. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

Marian Beitialarrangoitia: Beraz, nik uste det, batzuek ez dutela pentsatuko baina, nik neuk pentsatzen det gaur egun haundi bat dela Hernanirentzat, behingoz Arau Subsidiarioen inguruko testu sendo bat duelako, eta sendoa diodanean ez da bakarrik proposatzen duenagatik baizik eta lortu duen onarpen moduagatik. Orduan, ez borondatea, ez epea, ezta teknikari taldea ere etzen fidagarri batzuentzat, denborak erakutsi digu hori guztia ez zela horrela, nik hemendik teknikariek egindako lana eskertu nahi nuke, ze askotan joku politikoan teknikariei tokatu zaie seguruenera, ba egurra jasotzea motiborik gabe, ni ikaragarri pozten naiz gai hau egin eta eraman duten teknikarientz esku utzi izana lan hori, denboran onartu ahal izan delako, xuxen onartu ahal izan delako eta ez dakit zenbat "fe de erratas" onartzen ibili beharrik gabe beste batzutan pasa den bezela. Eta onarpena bera ere ez dakit zenbat orrialdetako baldintzarik gabekoa izan delako, ez orain duela lau urte bezelakoa. Hori esanda, baita ere pozten nau esateak, plenoak noski gehiengoz onartu duela, ala behar duelako, eta baita ere aurkeztu izan diren alegazioak, herritarren aldetik eta, oso portzentaia haundi batean onartuz eta bere eginez dijoala aurrera testu hau eta hori ere inportantea da. Galdera nagusia dut batzuek bidean egindako iragarpen katastrofikoetarako ia non gelditu diren guzti horiek: ez omen genituen inoiz onartzea lortuko eta ez omen zen horrelakorik izango, azkenean onartu, onartu dira, zorionez ez dugu dirutza gastatuko batzuek egindako lana kajoian sartu beste batzue-

Hernani, elaborado con fecha de abril de 2011 por los Servicios Técnicos Municipales.

Segundo.- Notificar el presente acuerdo de aprobación definitiva a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, al Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Guipúzcoa, al Servicio Provincial de Costas, así como al Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

Tercero.- Proceder a remitir una copia del Plan a la Excm. Diputación Foral de Guipúzcoa, para su depósito en el Registro Administrativo de Planeamiento Urbanístico.

Cuarto.- Efectuar las publicaciones legalmente preceptivas, en especial la de las Normas Urbanísticas del Texto Refundido, de conformidad con lo previsto en el artículo 89 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo.

Marian Beitialarrangoitia: Por tanto, en mi opinión, algunas personas no lo pensarán, pero yo sí lo pienso, hoy es un gran día para Hernani, porque el municipio cuenta por fin con un texto sólido de Normas Subsidiarias, y cuando digo sólido lo digo no sólo por lo que en él se propone sino por la forma en que ha alcanzado la aprobación. En aquel momento, ni la voluntad, ni el plazo, ni el equipo técnico resultaban fiables para algunas personas. El tiempo nos ha demostrado, sin embargo, que no era así; yo quisiera agradecer desde aquí la labor realizada por el equipo técnico, ya que en numerosas ocasiones, dentro del juego político, le ha tocado recibir candela probablemente sin motivo. Yo me alegro profundamente de haber dejado en manos de este equipo técnico este asunto, que ha podido aprobarse en tiempo, adecuadamente y sin necesidad de un sinfín de fe de erratas y condicionantes, como ocurrió hace cuatro años. Dicho esto, me alegra igualmente señalar que ha sido aprobado por el pleno por mayoría, porque así debe ser, y que un alto porcentaje de las alegaciones presentadas por la ciudadanía han sido aceptadas. Tengo una pregunta importante para aquellas personas que han hecho previsiones catastróficas durante todo el proceso. ¿Dónde han quedado? decían que nunca conseguiríamos aprobarlas, y finalmente se han aprobado, afortunadamente no gastaremos una fortuna guardando unos en un cajón la labor realizada por otros, tal y como hemos venido haciendo durante

na eta horrela hamabi hamairu urtetan ibili garen bezela, nahikoa desgrazia izan du herri honek hontan, eta bukaerarako askotan izan delako gure arteko eztabaidarako puntuetako bat eta nolabait ere saldu nahi izan delako gure baita itsukeriaren adibidetzat, aipatu nahi nuke, kanpotik, sektorialak diren esparruetatik eta Jaurlaritzatik iritsi zaizkigun txostenek esan dituzten hainbeste gauza, bai Ur Agentziak bidali digun txostena begiratzen badugu, Urumea inguruak ez okupatu izanari buruz oso hitz positiboak aipatzen dituzte baina bereziki nik aipatu nahi nuke esaldi bat, Ingurumen Sailak bere txostenean jasotzen duena, hitzez hitz gazteleraz dagoen bezela jasoko det eta erakusten diguna proposamen batzuetan ez dela itsukeria egon, baizik eta zentzuz jokatu nahi izana, eta horren adibide dela ez soilik honen alde egin dugunok defendatu duguna, baizik eta baita ere Udaletik kanpo ere antzera ikusi dutenak; aipatutako txosten luze horrek beste beste hau dio: *merece una valoración altamente positiva el replanteamiento de los sectores Altxueta, evidenciando una clara voluntad de preservar los valores agrarios, naturalísticos y paisajísticos que presentaban estos ambitos y de evitar ocupaciones innecesarias de suelos agroganaderos de alto valor estratégico.* Hau bezelako baieztapenak dituzten proposamenak bezalakoak daudelako testu bateratu honetan, ausartzen naiz esaten gaur egun haundi bat dela Hernaniarentzat, behingoz testu sendo bat izango duela eta gero izango ditu, denborak eskatuko dituen bere moldaketak, errealitatea asko aldatzen joaten delako, baina behintzat aurrera begira, datozen urteetarako, abiapuntu on bat izango da.

Iñaki Arratibel: Autobonbo hau entzun ondoren, esan gai hau ez dela gaur bukatzen, eta etorkizunak ikusiko duela nola bukatuko den, erreklamazioak eta guzti hori.

Marian Beitialarrangoitia: Bakoitzak berea, zuek ulertu zenuten proposamen baten onarpena hauteskundeen ondoren batzuek alkatetza hartzeko lau egunetara hemezortzi folioko kondizionanteekin eta ikaragarritzko arazoekin, beste batzuek lortu dugu zorion hitzekin beste elkarte batzuetatik, denbora sobrante eta lege agintaldiaren barruan. Bakoitzak atera ditzala bere konklusioak. Noski dokumentu honen bizitza ez dela hemen bukatzen, hasi egiten da zorionez eta bakoitzak hortik aurrera bere balorazioak egiten ditu.

Iñaki Arratibel: Hasierako dokumentu hori, hain

doce o trece años, suficiente desgracia ha tenido este municipio en esto, y al haber sido un punto de discusión entre nosotros y porque en cierta medida se ha querido vender como muestra de nuestra obstinación, quisiera señalar que desde fuera, desde ámbitos sectoriales y desde el Gobierno Vasco, a través de sus informes, se nos han dedicado frases muy positivas, desde la Agencia del Agua, acerca de la no ocupación del entorno del Urumea, y principalmente desde Medio Ambiente, que según señala, en algunas propuestas no ha habido obstinación, sino voluntad de actuar con sentido común, tanto por parte de los que hemos defendido todo esto como por parte de personas ajenas al ayuntamiento, que lo han interpretado de la misma manera. El informe señala literalmente: *merece una valoración altamente positiva el replanteamiento de los sectores Altxueta, evidenciando una clara voluntad de preservar los valores agrarios, naturalísticos y paisajísticos que presentaban estos ambitos y de evitar ocupaciones innecesarias de suelos agroganaderos de alto valor estratégico.* Por tanto, al contener este texto refundido propuestas con afirmaciones de este tipo, me atrevo a decir que hoy es un gran día para Hernani, porque cuenta al fin con un texto sólido, que posteriormente tendrá las modificaciones exigidas por el paso del tiempo, ya que la realidad va variando, pero al menos, de cara al futuro, para los próximos años, tendremos un punto de partida adecuado.

Iñaki Arratibel: Tras escuchar todo este autobombo, quiero decir que el tema no concluye hoy, ya se verá en el futuro cómo termina, las reclamaciones y todo esto.

Marian Beitialarrangoitia: Cada uno a lo suyo, vosotros conseguisteis la aprobación de una propuesta después de las elecciones, a cuatro días de que unos asumieran la alcaldía, con dieciocho folios de condicionantes y con infinidad de problemas; otros lo hemos conseguido con palabras de felicitación, con tiempo de sobra y dentro de la legislatura. Que cada cual saque sus conclusiones. Naturalmente que la vida de este documento no termina aquí, por fortuna comienza aquí, y a partir de ahí cada uno realiza sus valoraciones.

denostatua den dokumento hori, gai askotarako baliagarria izan da.

2.- OSOKO BILKURAK 2011KO OTSAILAREN 22AN HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOA, TXANTXANGORRI EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEAK JARRIA. - Udalbatzak 2001ko otsailaren 22an egindako osoko bilkuran erabaki zuen Hernaniko Udalak Txantxangorri Elkarteari Santa Barbara mendian lursail bat erabiltzeko egindako lagapena 2012ko abenduaren 31n buka dadila, eta elkarte horri eskatzea data horretarako lursail hori udalaren esku jar dezala, hainbat baldintza betez.

Txantxangorri Elkarateak erabaki horren hainbat zatiren kontrako berraztertze errekurtsoa jarri du 2011ko martxoaren 21ean.

Aztertu da horri dagokionez egindako txosten juridikoa.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2011ko apirilaren 6ean emandako irizpena.

Beatriz Fernandino: Gai honen inguruan Txantxangorriko ordezkari batekin aritu naiz hizketan eta tiro-eremuaren garbiketari dagokionez, bai uste dut garbitu beharra dagoela, eta jakin nahi nuke ea zenbat kostatuko litzatekeen baloratu duzuen. Eta, bestalde, aipatzen zenuten Eusko Jaurlaritzak Ingurumen Sailaren bitartez agian laguntzaren bat eman ahal izango lizuekeela; horren harira, bai jakin nahiko nuke zer nolako aukerak dauden edo nola ikusten duzuen hori, pixka bat azaltzea hori guztia; bideragarria den, Foru Aldudiaren bidez egin daitekeen, egia den ala ez.

Txantxangorriko ordezkari baten interbentzioa.

Marian Beitialarrangoitia: Bi gauza esango nituzke: ni ez negoen hemen bi mila eta bostean baina ulertzen det Udalak momentu bakoitzean hartzen duenean erabaki bat askotan baldintza batzuk ez jartzeak esan nahi du momentu horretan ez zaiola horrela egitea bururatu; sortzen diren momentuan erabakiak sortzen dira baldintzak ere. Momentu honetan erresolbitzen ari gara momentu honetan Udalak bermatu eta erabaki behar du itzultzea eskatzea eta ze kondiziotan eskatzen duen; gero beste gauza bat da dirulaguntzak egoten direla,

Iñaki Arratibel: Ese documento inicial, ese documento tan denostado, ha sido válido en numerosos asuntos.

2.- RESOLUCIÓN DEL RECURSO DE REPOSICIÓN CONTRA EL ACUERDO DEL AYUNTAMIENTO PLENO DE 22 DE FEBRERO DE 2011 INTERPUESTO POR LA SOCIEDAD DE CAZA Y PESCA TXANTXANGORRI.- En sesión plenaria celebrada el 22 de febrero de 2011, el Ayuntamiento acordó dar por finalizada, el 31-12-2012, la cesión de uso de la parcela del Monte Santa Bárbara realizada por el Ayuntamiento de Hernani a la Sociedad Txantxangorri y requerir a dicha Sociedad a que en dicho plazo ponga a disposición del Ayuntamiento la finca citada en determinadas condiciones.

Contra alguna partes del referido acuerdo, la Sociedad Txantxangorri ha interpuesto el 21 de marzo de 2011 recurso de reposición

Visto el informe jurídico emitido al efecto.

Visto el dictamen de la Comisión de Urbanismo y Medio Ambiente de fecha 6 de abril de 2011.

Beatriz Fernandino:

Sobre este punto antes he estado hablando con un representante de Txantxangorri y en cuanto a la limpieza del campo, si creo que se debe de limpiar, si que me gustaria que por parte de Txantxangorri, si se ha valorado el coste de lo que puede costar la limpieza, y luego hablabais de la posibilidad también de que por parte del Gobierno Vasco, por mediación de Medio Ambiente, se podría echaros una mano economicamente; en ese sentido, si que me gustaria que posibilidades o como lo veis eso, que me explicaseis un poco; si es viable, posible por mediación de la Diputación, si es verdad o no.

Intervención de un representante de Txantxangorri.

Marian Beitialarrangoitia: Quiero decir dos cosas: yo no estaba aquí en 2005 pero entiendo que el Ayuntamiento cada vez que toma una decisión si no impone unos condicionantes quiere decir que en ese momento no ha considerado hacerlo así. En este momento estamos resolviendo que el ayuntamiento debe garantizar y decidir solicitar la devolución y en qué condiciones lo hace; otra

badaude makina bat gauza egon daitezkeenak horrelako gauzetarako eta seguruenara Txantxangorri bere kabuz eska litzazkeenak, hori begiratzeko aldera, zer diren posible eta zer ez, Udalak lagundu ba dezake lagunduko du, baina Udalak bermatu behar duena bere erabakiak hartzean, jasotzen duen hori kondizio honetan jaso behar duela, bestela berak pagatu behar du, bere osotasunean. Udalak hori premisa bezela jarri beharra dauka, ez balu jarriko, dena ordaindu beharko luke, eta hori da Udalak paperean ezin duena horrela esan, bere teilatuari harriak botatzen ariko litzateke. Udalak topea bermatu behar du.

Txantxangorriko ordezkari baten interbentzioa.

Iñaki Arratibel: Gai honetan hasieran esan genuen iharduera mantendu egin behar dela Hernanin, interes publikoaren alde gaude eta gaia nola eman den ikusita kontrako botoa emango dugu. Badakigu iharduera hori Santa Barbaratik aterata egin behar dela, eta hori bi mila eta bostean onartutako hitzarmenean ere agertzen da. Baina gaia da iharduera hau Hernanin mantendu behar dela, non ikusiko beharko litzateke, zein den tokirik egokiena, eta baldintzak betetzen dituen tokia; hori bermatzen ez den bitartean gure botoa kontrako izango da.

Beatriz Fernandino: Tiro-eremua libre utzi behar da, udalak lagapen bat egin zuen eta lehen zegoen moduan utzi behar da; eta, garbiketa egiteko diru-laguntzaren bat jasotzeko aukerarik baldin badago, udalak badu ardura horiek lortzeko atzurretan.

Esandakoa kontuan hartuta, irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

* Aldeko botoak: 9 (Beitilarrangoitia and., Arrieta jn., Lucas and., Plazaola jn., Txintxurreta and., Ezeiza and., Erroitzenea jn., Barrutiabengoa and. eta Fernandino and).

* Kontrako botoak: 4 (Amonarraiz jn., Cuesta jn., Arratibel jn, Barrio jn,

* Abstentzioak: 3 (Chica jn, Pérez jn eta Anglada and),

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

cosa es que existan subvenciones, hay muchas ayudas para este tipo de cosas que Txantxangorri probablemente podrá solicitar por su parte. Si el ayuntamiento puede ayudarlo a mirar todo esto le ayudará, pero lo que tiene que garantizar es que lo que reciba lo haga en buenas condiciones, de lo contrario tiene que pagarlo el propio ayuntamiento, en su totalidad. El ayuntamiento tiene que fijar esta premisa, ya que de no hacerlo así debería pagarlo todo, y es esto lo que el Ayuntamiento no puede reflejar en papel, pues estaría arrojando piedras sobre su propio tejado. El ayuntamiento debe garantizar el tope.

Intervención de un representante de Txantxangorri.

Iñaki Arratibel: Sobre este tema al principio dijimos que había que mantener la actividad en Hernani, porque estamos a favor del interés público pero, a la vista de cómo ha sido tratado el tema, votaremos en contra. Sabemos que esta actividad debe salir de Santa Bárbara, lo cual ya viene reflejado en el convenio de 2005. Sin embargo, la cuestión es que hay que mantener esta actividad en Hernani, aunque habría que estudiar dónde y cuál es el lugar más idóneo y el que cumple las condiciones; mientras no se garantice esto votaremos en contra.

Beatriz Fernandino: Hay que dejar el campo libre, el Ayuntamiento hizo una cesión, y hay que dejarlo como estaba; por otro lado, si hay posibilidades de conseguir subvenciones para la limpieza, desde luego responsabilidad del Ayuntamiento para que interfiera a la hora de obtenerlas.

La Sra. Alcaldesa-Pta. Lo somete a votación, obteniendo el siguiente resultado:

* Votos a favor: 9 (Sra. Beitilarrangoitia, Sra. Lukas, Sr. Arrieta, Sra. Barrutiabengoa, Sr. Erroitzenea, Sr. Plazaola, Sra. Txintxurreta, Sra. Ezeiza y Sra. Fernandino),

* Votos en contra: 4 (Sr. Amonarraiz, Sr. Cuesta, Arratibel, Sr. Barrio)

* Abstenciones: 3 (Sr. Pérez, Sr. Chica y Sra. Anglada).

Lehena.- Txantxangorri Elkarteak Udalbatzak 2011ko otsailaren 22an hartutako erabakiaren aurka jarritako berraztertzeko errekurtsioa ezestea. Hona hemen arrazoiak:

a) Errekurtsogileak orain dauden instalazio batzuek ez botatzeko (edo, gutxienez, haien eraispena agindu aurretik azterlan bat egin dadila eskatzeko) aplikatu nahi duen eraispen txikiagoko printzipioa (7/85 legearen 84. artikuluan arautua), errekurtsogileak berak dioen moduan, "herritarren jardueran esku hartu ahal izateko" erabiltzen den printzipioa da (batzutan baita bortxaz ere). Baina mintzagai dugun kasu honetan, udalbatzak ez du jarduera pribatu batean ez esku hartzen ez eta hura kontrolatzen ere, baizik eta eraikinaren jabe den aldetik egiten du egiten duena, ondasunaren lagapen-hartzailearekiko duen kontratu-loturaren indarrez. Horrenbestez, ondasuna erabiltzaileari lursaila bere garaian utzi zitzaionean zegoen egoera berean itzultzeko eskatzeko moduan dago, eta tiro-eremua egokitzeko egin dituzten eraikuntza eta instalazio guztiak botatzeko eskatzeko moduan ere bai.

Nolanahi ere, lursaila modu edo baldintza horietan itzultzeko agindua eman bada ere, egin diren eraikuntza eta instalazio guztiak botatzea dakarrelarik, udalbatzak beti izango du aukera eraispena egitekoa den unean bertan eraispen hori norainokoa izango den berraztertzeko eta mantentzea interesgarri jotzen duen elementuren bat ez dadila bota erabakitzeko, baldin eta hori errekurtsioa egin duen elkartearentzat mesedegarriagoa baldin abda, hura da-eta, azken finean, eraisketa horiek egitera eta ordeintzera derrigortua dagoena.

b) Bigarrenik, udalak ez du jarduera noiz eten behar den agindu, baizik eta udalarena den lursailaren erabileraren lagapena noiz eman behar den bukatutzat. Finka Hernaniko Udalarari osoko bilkuran ezarritako epean itzultzeak (epe hori bat dator, gainera, bere garaian erabilera lagapena arautze aldera

Por lo que a la vista de los votos emitidos, se acuerda:

Primero.- Desestimar el recurso de reposición interpuesto la Sociedad Txantxangorri contra el acuerdo adoptado por el Pleno de la Corporación el 22 de febrero de 2011, por los siguientes motivos:

a) El principio de menor demolición que la recurrente pretende aplicar para exigir la no demolición de algunas de las instalaciones existentes (o al menos para requerir la elaboración de un estudio previo a su orden), es un principio, que como ella misma señala (regulado en el artículo 84 de la Ley 7/85), se aplica a la capacidad que a los entes locales les es reconocida para "intervenir la actividad de los ciudadanos" (a veces incluso de forma coactiva), mientras que en el presente supuesto la Corporación no interviene ni "controla" una actividad privada, sino que actúa, desde su posición de propietario del inmueble, y en el contexto de la relación "contractual" que desde este punto de vista le une al cesionario del bien. Puede, por tanto, solicitar la restitución del bien en el mismo estado en que, en su día, lo entregó al usuario, y, exigir la demolición de todas las construcciones e instalaciones que se hayan realizado para habilitar el campo de tiro.

En cualquier caso, aun cuando se haya emitido la orden de restitución de la parcela en dichos términos, lo que conlleva la demolición de todas las construcción e instalaciones, la Corporación siempre podrá, en el momento efectivo en que vaya a materializarse la misma, reconsiderar el alcance de aquélla, acordando no derribar algún elemento que se entienda es interesante conservar, en la medida en que la conservación (no demolición) de alguna construcción sería más ventajosa y favorable para la Sociedad recurrente, que es, en definitiva, la obligada a efectuar y costear esos derribos.

b) En segundo lugar, el Ayuntamiento no ha ordenado cuándo debe producirse el cese de la actividad, sino cuándo se debe dar por terminada la cesión de uso de la parcela de

izenpetutako kontratuan ezarritakoarekin) eskatzen badu jarduera lehenagotik eten behar izatea, hori lurzoruaren kalitatearen deklarazio espedientearen tramitazioaren baitan egongo da eta ingurumen organoak horrekin lotuta betetzeko ezartzen dituen neurrien baitan (eta gauzatzeko behar den denboraren baitan).

- c) Azkenik, beharrezkoak izan bide diren zuzenketa neurriak jartzerakoan Txantxangorri Elkartearen erantzukizuna zehazteko eskumena duen entitateari dagokionez, esan beharra dago ez dela Hernaniko Udala izan adierazi duena Txantxangorri entitateak duela erantzukizuna, baizik eta beste hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak (81. artikulua 1. atalak), Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeak (29. artikulua) eta Hondakinen apirilaren 21eko 10/1998 Legeak (27. artikulua).

Alabaina, agindu horiek lurzoruaren jabearen "erantzukizun" subsidiarioa zehazten duten neurrian, eta udalbatza hau denez lursailaren jabea, udalak, jabe den aldetik (jabea bai, baina ez ingurumen organoa), kutsadura sortzen duenari eska diezaioke (eta eskatu gin beharra dauka) lursaila garbi eta dagokion ziurtagiria duela itzul dakiola, hots, lurzoruaren kalitatearen deklarazioa egiten duen ebazpenarekin. Argi dago, noski, hori lortzeko hartu beharreko neurriak ingurumen organoak zehazten dituenak izango direla, eta ez Hernaniko Udalak zehazten dituenak.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 18:20 orduetan bilera bukatutzat eman da eta nik, idazkariordea naizenez, ziurtatu dut.

propiedad municipal. Si la devolución o restitución de la finca al Ayuntamiento de Hernani en el plazo establecido por el acuerdo plenario (que, por su parte se ajusta al plazo señalado en el Convenio de cesión de uso suscrito en su día) requiere el cese de la actividad con carácter previo, es una cuestión que dependerá de la efectiva tramitación del expediente de declaración de calidad del suelo, y de las efectivas medidas que en el contexto del mismo el órgano ambiental establezca que deben realizarse (y del tiempo que su materialización requiera).

- c) Por último, y en relación a la entidad competente para determinar la responsabilidad de la Sociedad Txantxangorri en la adopción de las medidas correctoras que pudieran ser necesarias, lo cierto es que no es el Ayuntamiento de Hernani quien ha señalado la responsabilidad de la entidad Txantxangorri, sino la Ley 3/98, de 27 de febrero de Protección General del Medio Ambiente, la Ley 1/2005, de 4 de febrero para la prevención y corrección de la contaminación del suelo y la Ley 10/98, de 21 de abril, de Residuos, al imputar todas aquéllas la responsabilidad, en primer lugar y de forma directa, a los causantes de la contaminación, entre otros en los artículos 81 apartado 1º de la Ley 3/98, artículo 29 de la Ley 1/2005, y por remisión de ésta en el artículo 27 de la Ley 10/98.

Ahora bien, en la medida en que dichos preceptos determinan una "responsabilidad" subsidiaria del propietario de suelo, y, en cuanto esta Corporación es propietaria de la parcela, el Ayuntamiento, en su calidad de propietario (que no de órgano ambiental) puede (y debe) exigir al causante de la contaminación que la parcela le sea restituida limpia y con la correspondiente certificación, esto es, con la Resolución por la que se declara la calidad del suelo. Obviamente, las medidas que hayan de materializarse para dicha obtención serán las que determine el órgano ambiental y no el Ayuntamiento de Hernani.

Y sin mas asuntos que tratar y siendo las 18:20

horas, se levanta la sesión de lo que yo, el Secretario accidental doy fé.